

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ATAURIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, eta borondatezko epean ordaintzeko moduan jartzea 2020-2021eko ordainagiriak

Behin eginik Ataurin etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2020-2021eko errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesdunek Atauriko (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek erroldan jasotako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiteko funtzioa betetzen du, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsua, edo hura amaitu ondorengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2021eko abenduaren 10etik 2022ko urtarrilaren 10era artekoa da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2022ko urtarrilaren 10ean kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Atauriko Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekguarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Atauri, 2021eko azaroaren 3a

Lehendakaria

MARÍA ARANTZAZU DIEZ-CABALLERO SOTO